

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatu Nagusiaren 370/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko diru-laguntza lerro bat onartzen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 51/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko diru-laguntza lerro baterako oinarri arautzaileak onetsi ziren, bai eta laguntza horien 2017 ekitaldiko deialdia ere.

Martxoaren 4ko 101/2019 Foru Dekretuaren bidez, 2019. ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntzaren deialdia onesten da.

Aurkezteko epea amaitu da eta hamar erakundeak aurkeztu dituzte deialdiaren xederako dirulaguntzak jasotzeko eskaerak. Aurreko atalean zehaztutakoaren arabera, hamar erakundeak onartu dira norgehiagoka araubiderako.

Bosgarren artikuluko (Aurkeztu beharreko agiriak) 2. eta 3. idatz zatietan azalduakoa oinarri hartuta, nahitaezko agiriak eta/edo osagarriak eskatu zaizkie hamaika erakunderi, eta behar bezala eta epean erantzun dute.

Deialdi honetarako 125.000,00 euroko zenbatekoa onartu da.

Diru-laguntzak lehia araubidean emango dira, bi baldintzaren pean (oinarri arautzaileen 6. artikulua, 2. eta 3. idatz zatiak).

Balorazio Mahaiak aztertu ditu aurkeztutako eskaerak eta puntuazioa eman die zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera; honako hauek izan dira irizpideak eta banaketa:

Irizpidea	Puntuazioa
Jardueraren zehaztapen teknikoak	60
Eskatutako jardueren egokitasuna, proiektuak lortu nahi dituen helburuen aldean	20
Proiektuaren koherentzia orokorra	20
Guztira	100

“Jardueraren zehaztapen teknikoak” izeneko atalean, gehienez ere 60 puntu lor daitezke, ondoko taulan jasotzen den moduan. 60 puntu horiek honela banatzen dira, eskatutako jardueren arabera:

Aukera	Laguntza jasoko duen jarduera mota	Jardueren gehieneko puntuazioa
1. aukera	Baliabide materialak	25,00
	Sentsibilizazio kanpainak	25,00
	Kanpoko laguntza teknikoa	10,00
2. aukera	Baliabide materialak	30,00
	Sentsibilizazio kanpainak	30,00
3. aukera	Baliabide materialak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
4. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	42,85
	Kanpoko laguntza teknikoa	17,15
5. aukera	Baliabide materialak	60,00
6. aukera	Sentsibilizazio kanpainak	60,00
7. aukera	Kanpoko laguntza teknikoa	60,00

Oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera, emandako puntuazioari erreparatuta esleitu dira laguntzak, kontuan izanik, a priori, diru laguntzaren gehieneko portzentajea (ehuneko 70) eta kuadrilla bakoitzeko gehieneko zuzkidura (20.833,33 euro):

ESKATZAILEA	Puntuak	Diru laguntza jasoko duen aurrekontua	Emandako diru laguntza	Oharrak
Aramaioko Udala	95,00	9.747,76	6.823,43	70%
Donemiliagako Udala	95,00	16.874,06	11.811,84	70%
Añanako Kuadrilla	90,00	36.141,70	25.299,19	%70 Bigarren banaketan gerakina esleitu zaio
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	88,00	32.408,64	22.686,05	%70 Bigarren banaketan gerakina esleitu zaio
Zuiako Udala	85,00	19.458,62	13.621,03	70%
Arratzua-Ubarrundiako Udala	84,00	9.146,09	3.091,80	%33,80 Bigarren banaketan gerakina esleitu zaio
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	83,50	34.070,70	20.833,33	61,15% Kuadrillako gehieneko muga
Urkabustaizko Udala	82,00	12.381,93	0,00	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
Zigoitiko Udala	82,00	14.889,05	0,00	Agortu egin da kuadrillako gehieneko zuzkidura
Aiarako Kuadrilla	71,00	48.752,16	20.833,33	42,73% Kuadrillako gehieneko muga
ZENBATEKOA, GUZTIRA		233.870,71	125.000,00	

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Adierazitako laguntzak ematea erakunde hauei, dagozkien ekintzak gauzatzeko:

ESKATZAILEA	Puntuak	Diru laguntza jasoko duen aurrekontua	Emandako diru laguntza	
			7. kapitulua	4. kapitulua
Aramaioko Udala	95,00	9.747,76	2.439,36 €(Xedapen erref. 19.5.19-215/427/5)	4.384,07 €(Xedapen erref. 19.5.19 – 215/423/5)
Donemiliagako Udala	95,00	16.874,06	11.811,84 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/6)	
Añanako Kuadrilla	90,00	36.141,70	19.335,33 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/1)	5.963,86 (Xedapen erref. 19.5.19-215/423/1)
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	88,00	32.408,64	17.959,79 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/3)	4.726,26 (Xedapen erref. 19.5.19-215/423/3)
Zuiako Udala	85,00	19.458,62	6.244,51 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/7)	7. 376,52) Xedapen erref. 19.5.19-215/423/6)
Arratzua-Ubarrundiako Udala	84,00	9.146,09	1.946,50 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/8)	1.145,30 (Xedapen erref. 19.5.19-215/423/7)
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	83,50	34.070,70	10.161,26 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/2)	10.672,07 (Xedapen erref. 19.5.19-215/423/2)
Aiarako Kuadrilla	71,00	48.752,16	15.705,35 (Xedapen erref. 19.5.19-215/427/4)	5.127,98 (Xedapen erref. 19.5.19-215/423/4)

Bigarrena. Diru laguntza ukatzea Urkabustaizko eta Zigoitiko udalei, kuadrilla bakoitzeko ezarritako gehieneko muga eta aurrekontuko esleipena agortu dutelako.

Hirugarrena. Diru-laguntza lerro hau arautzen duten oinarrien 9. artikuluan (Emandako diru laguntzak ordaintzea eta justifikatzea) ezarritakoaren arabera ordainduko dira diru laguntzak.

Laugarrena. Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko eskaerak 2019ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko dira.

Bosgarrena. Erakundeek diruz lagundutako jarduketak egin behar dituzte 2019ko abenduaren 31 baino lehen. Deialdi honetan 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketek jaso dezakete dirulaguntza.

Seigarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO